



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka  
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY  
2024/12/17



NIF: P3115200B

KULTURA / CULTURA

Espedientea 193498Y

## OLENTZERO ETA JAIOTZEN LEHIAKETA 2024

Plaza Zaharrea, abenduaren 24ean, 12:00etan

### ARAUTEGIA

- A – 10 urte arteko haurrak**  
**B – 11 urtetik 15 urtetarainoko haurrak**  
**C – 16 urtetik goitikoak**

Olentzeroak eta Jaiotzak 11:30erako egon beharko dira plazan. Euria eginez gero, udal pilotalekuan egingen da.

Lehiaketan aurkeztuko diren taldeak guttienez 6 pertsonen osatuak izanen dira.

Taldekide batek hurrengo kategoriko adina baldin badu, automatikoki hurrengoan lehiatuko da.

Olentzero talde bakoitzak 2 kanta kantatuko ditu: bata, nahitaez "OLENTZERO BURU HAUNDIA" izanik eta bigarrena talde bakoitzak aukeraturikoa, Lesakako ohiturazko kanten artean.

Derrigorrez Olentzeroa bizkar gainean izanik kantatu beharko da.

Epaimahaia, herriko bederatzita pertsonen osatua egonen da. Olentzeroa edo Jaiotza, kanta eta janzkera baloratuko dituzte. Epaimahaia kioskoan egonen da eta honen espazioa errespetatu beharko da beraien eginbeharra oztopatu gabe. Epaimahaia, kantua baloratuko du (10 puntu gehienez), Olentzeroa-Jaiotza (10 puntu gehienez) eta janzkera (8 puntu gehienez).

Lehiaketaren ondotik, bertan parte hartu nahi ez dutenentzat, jaialdiko atala izanen da. Atal honetan taldeek kantatu eta beraien Olentzeroa edo Jaiotza erakusteko aukera izanen dute, betiere lehiatu gabe. Atal honetan parte hartu nahi duenak, goizean, lehiaketa hasi aitzin, antolakuntzari jakinaraztea eskertuko da.

Ilunabarreko 18:00etan C kategorian irabazi duen Olentzeroak kalejira egingen du herriko karraketan barna Lesakako Musika Bandak lagundurik.

Lehiaketa 12:00etan ospatuko da plazan. Parte-hartzaile guztiek akitu ondotik, irabazleen zerrenda jakinaraziko da eta sariak banatuko dira.

Lehiaketaren ondoren Olentzero eta Jaiotza guztiak, kaleetatik jaso beharko dira.

Bertalde, Olentzeroak hondatu eta herrian zehar hondakinak utziz gero, biltzeak suposatzen duen kostua Olentzero talde horrek ordaindu beharko du.

Lehiaketan parte hartzeko alde aitzinetik izena eman beharko da: abenduaren 23an 09:00-14:00 Lesakako Udaletxeko 1. solairuan. Izena ematerakoan **konpromezu orri** bat sinatu beharko da.



ZIGILUA

Tragarri-ohol elektronikokoan argitaratua  
2024/12/17



LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA ACLT ZFM9 K3K4 FY27

**Olentzero eta Jaiotzen Lehiaketa 2024 - Arautegia - SEFYCU 125730**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/> 2tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka  
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY  
2024/12/17



NIF: P3115200B

KULTURA / CULTURA

Espedientea 193498Y



ZIGILUA

Tragarkeri-ohol elektronikoa argitaratua  
2024/12/17

## SARIAK

### OLENTZERO

#### A-10 URTE ARTE

Lehena	100 €
2.a	90 €
3.a	80 €
4.a	70 €
5.a	60 €
6.etik aitzinera	50 €

#### B-11TIK 15 URTE TARA

Lehena	120 €
2.a	110 €
3.a	100 €
4.a	90 €
5.etik aitzinera	80 €

#### C-16 URTETIK GOITI

Lehena	600 €
2.a	400 €
3.a	300 €
4.a	200 €
5.etik aitzinera	150 €

### JAIOTZAK

#### 10 URTE ARTE

Lehena	80 €
2.a	70 €
3.a	60 €
4.a	50 €
5.a	40 €
6.etik aitzinera	30 €

#### 11 URTETIK GOITI

Lehena	100 €
2.a	90 €
3.a	80 €
4.a	70 €
5.a	60 €
6.etik aitzinera	50 €

**OHARRA: Abenduaren 24ko Olentzero eta Jaiotzen lehiaketan parte hartzen dutenen argazki artxibo historiko bat osatzeko helburuarekin, Lesakako Udalak argazkilari ofizial bat kontratatuko du egun horretarako olentzero, jaiotza, parte-hartzaile eta abarren argazki albuma egin dezan. Argazkiak nahi duen ororentzat egonen dira eskuragarri. Hori dela eta, ezin izanen da kioskoan sartu argazkiak edo bideoak ateratzeko.**



LESAKA

Egiatzen-aseguru kodea: AECA ACLT ZFM9 K3K4 FY27

**Olentzero eta Jaiotzen Lehiaketa 2024 - Arautegia - SEFYCU 125730**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/> 2tik 2 orrialdea